

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5319

*1542/2024 EBAZPENA, urriaren 30ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan Intxaurrundoko Osasun Zentroan Administrazio Ekipoko Buruaren lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten baita.*

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Intxaurrundoko Osasun Zentroan Administrazio Ekipoko Buruaren lanpostua hutsik dago. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-aren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera

#### OINARRIAK

##### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta lanpostua jabetzan izatea C2/D2 lanbide-taldean.
- C2/D2 lanbide-taldeari dagokion titulazioa izatea.
- Gutxienez 2 urteko lan-esperientzia C2/D2 lanbide-taldean.
- Hizkuntza-eskakizuna: 2. hizkuntza-eskakizuna (derrigortasun-data 2016-12-03).
- Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako betebeharrak betetzea.

##### 2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak:

- Pertsona-taldeak antolatzeko eta kudeatzeko gaitasuna.
- Kudeaketa-tresnei buruzko ezagutzak (SAP, karteldegia, Osakidetzakoa...).
- Osabide AP eta e-Osabide asistentzia-aplikazioen erabiltzaileak eta agendak kudeatzen jakitea eta esperientzia izatea.
- Ofimatikako ezagutzak erabiltzaile mailan: Posta eta Office aurreratua.
- Administrazio-arloko prozesuetan inplikaturako aplikazioak ezagutzea: B@kQ, eSapu, OpenScape Telefonia, Txandaka, Eskabide).
- Lantaldeetan eta hobekuntza-taldeetan parte hartzea.

g) Administrazio-arloetako prestakuntzan eta beste prozesu batzuetan irakasle gisa izandako esperientzia.

h) Administrazio-arloko zerbitzu-zorroari buruzko ezagutzak: izapide kliniko administratiboak, aseguramendua eta osasun-txartela, herritarrentzako informazioa, dokumentazio klinikoa, kexak eta erreklamazioak, osasun-karpeta.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

### 3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

### 4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Begiristain Dok. Pasealekua z.g., 20014 Donostia). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek beren datu pertsonal guztiak dituen eskabidea aurkeztu beharko dute, Donostialdeko ESiko Langileen Zuzendaritzan dokumentatutako curriculum vitaearekin (CV) batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada, gogio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

### 5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

2024ko azaroaren 20a, asteazkena

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

#### 6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

#### 7.– Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetzako Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentearen Ebazpenaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta baita Osakidetzaren intranetean zein webgune korporati-boan ere argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

#### 8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2024ko urriaren 30a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,  
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.